

# Goibeko kale

1997ko apirila. 23zk.

ELGETAKO ALDIZKARIA

F. IRIBAR  
SALBADOR 9-1<sup>a</sup> EZK.

## 50 URTE GAZTIAK EGITEN

Maderas Gallastegi, s.a.

MENDI USTIAKETA ETA ZERRA MEKANIKOA

Azkarreta auzoa 48230 Elorrio (BIZKAIA) Tel. eta Faxe: 6583061.



Zabaleta: txapelketa egingo da.

**Goibekokaleko** azken zenbakian agertzen zen albisteak harrিতuta utzi gintuen auzo-koak. Zabaletan bolo txapelketarik ez zela egingo jartzen zuen. Justu egun horietan bukatu genituen bolatokiari estalkia jartzeko lanak. Ordu mordoa sartu behar izan ditugu lanak burutzeko, baina emaitzarekin gustora gelditu gara.

Bergarako udaletxearen dirulaguntzari buruz jartzen zuena ere ez zen zuzena, laguntza ziurtatuta dago, materialaren aurrekontuaren %50, lana guk eginda. Beste edozein herriak lanak burutzeko ere eredu polita iruditzen zait auzolana berreskuratzea. Diru dextente aurreztuz lan politikak egin daitezke.

**Goibekokalekoei** gomen-datuko nieke albisteak argitaratzeko orduan, zerikusi dutenekin aurretik egotea.

Azkenik gogoratu maiatzaren 17an Zabaletan Gipuzkoako XXVIII. Bolo txapelketako azken tirada izango dela, Parte hartzera edo trago-ren bat hartzera elgetar eta angiozar guztiok gonbidatuta gelditzen zarete.

*Zabaletatik*

## ZURE ESKUTITZEN ZAIN GAUDE!

Atal hau zuen eskutitzen zain dago. Bertan kezka, iritzi, galdera, etab. adierazteko aukera duzue. Eskutitzak izena, bi abizen, telefono zenbakia eta NAN zenbakia izan beharko ditu derrigorrez. Gero argitaratzerakoan, eskutitzaren egileak hala eskatuko balu, inizialak edo gaitzizena agertuko dira. Ez da komeni eskutitzen luzera 15-18 lerro baino luzeagoa izatea. Bidali **sobrean Goibekokale** ipinita edo bota udaletxe azpiko buzoira.

## Noiz bizi behar ote dugu?

Ondo, oso ondo, bikain. Eusko Jaularitzak eremu nazionaleko argitalpenei lehentasuna eman die. Ahaztu egin al dira herri aldizkariak?

Eusko Jaularitzak ez du emango diputazioak eta udaletxeak ematen duten dirulaguntza baino gehiago. Bietako edozeinek emandako kopuru txikiena hartuko da erreferentziatzat. Koldo Ordozgoiti kultura saileko prentsa arduradunak jakinarazi du herri aldizkariak dirua lortzeko mugitu egin beharko dutela.

Zelako neurriak hartu dituzten despatxoko gizon hauek. Egoera beti izan da larria baina oraingoan zer ikusi behar ote dugu. Oraindik bizitzea zer den ez dakitenei ari zaio Jaularitzak mugitzeko eskatzen, bizi-iraupenean hainbat urtetan dauden euskara hutsezko aldizkariak. Gure aldeko apustua egin beharrean gero eta oztopo gehiago jartzen ari zaigu Kultura saila eta hori gutxi balitz ez dakit konturatu ere egin diren herri aldizkariak betetzen dugun funtzioak.

Gure kasuan iaz jaso genuen laguntzaren erdia ere ez dugu jasoko Jaularitzatik eta gure proiektuak pikutara joan dira dagoeneko. Koloretako azala, barruan bi kolore izatea, ditugun zorrak kentzea... Laguntza jeitsiera honekin ezin izango dugu horrelako ezer egin.

Horrelakoetan hilzorian uzten dituen beste aldizkari batzuek ere orizten naiz erabaki honek egoera larrian uzten baititu gure antzera. Orain sekula baino gehiago egon beharko dugu batuta eta bizi-irauten jarraitu bizitzeko bideak egin arte.

Guk ziur jarraituko dugula lantaldeak gogo handia erakutsi baitu. Lerro hauek aprobetxatu nahi nituzke bada lanean gogor jarrai dezaten aldizkariak "pieza" bakoitza oso garrantzitsua baita.

Iban Arantzabal Arrieta

AENOR

**ER**

Empresa Registrada

ER-714/2/96

*Estampaciones* **Elgeta**

Estanpaketa orokorra,  
Prensa automatizatuak 250 tonaraino,  
Serie handietan espezializatua.



Salbador, 32. Tel eta Faxe: 76 82 61





## Euskadi Tropikala

**H**odeitsu samarra izango da gaur eguna, bereziki Nafarroako barrualdean. Temperaturak gora egingo du haizeak hegoalde-tik joko baitu gaur ere, epel-epel. Edota... eguraldi ona izango dugu, zeruak urdin eta euria egiteko asmorik ez du izango aste honetan. Horrelakoak entzun ditugu eta entzuten ditugu astea joan eta astea etorri. Izan ere, aspalditxo ez du euririk egin, benetako euririk ez behintzat. Inguruko artzainek diotenez ekainerarte ez omen du euririk egingo. Hau da komeria! Honek ekarriko digu buelta, honek!

Entzuten hasiak gara dagoeneko galerak izan direla, pinuak eta ardien larreak lehortzen daudela, baina kalekumeei galdetuz gero jendea pozik dago, neu bai behintzat!

Lehenengo aldiz aurrez antolatu ahal izan ditugu irteerak, eguraldiak zer ekarriko digun pentsatu gabe; egunero jeiki eta eguraldi ona ikusi dugu.

Irteerak aipatzen ditudanez esan nahi nuke, hemendik kanpoko baztarrak eta bazkaltzeko egokitutako txokoak ondo zainduta ikusi ditugula eta ez gure "asentzioko" jolas tokia moduan, astetik aстера okerrago dago: arriskutu dago momentu honetan. Penagarria da horrelako ingurunea ez zaintzea.

Euskadi "tropikala" dugula esan zidan batek. Eguraldia antzekoa dugu baina tropikoan bizi diren filosofia izango bagenu ez litzaiguke gaizki etorriko askotan. Lasaiago biziko ginatke.

Lehorte honek alergiak ere areagotu ditu. Polena ugaritu eta egun haizetsu hauekin zabaldu. Baina lasai! honetarako ere badaude aholkuak. Hauek dira batzuk:

- 1- Gauetz leihoak itxita lo egin
- 2- Egun haizetsuetan gutxiago irten.
- 3- Kotxez goazenean leihoak itxita gidatu...

Eguzkiñe Odriozola



## Errepideak eta zirkulazioa...

**O**ndo oroitzen naiz, 1959an Bergarara joan beharra neukan, eta autobusa hartzeko ordurako, goizeko 9:30etarako beste zeregin batzuegatik, ezin iritxi. Euri eguna zen. Arkupean egonalditxo bat egin nuen, eta inortxo agertzen ez. Oinez ekin nion bideari, Bergara bidean, bakarren bat geldituko zitzaidalakoan. Aterkina zabaldu, Bergarara iritxi arte itxi gabe joan nintzen, eta kotxedun edo motordun bat ere bitartean ez zen pasatu.

Gertakizun honekin, zein aldaketa egon den errepideen ibileretan aditzera eman nahi izan dut.

Gauza bat bera, lagun asko erabiltzen hasten direnean, araudiak denen onberatasunerako ipintzen dira. Baina bete?.....

Gai honetan berezien, hiru faktore sartzen dira: Errepidea, ibilgailua eta **GIDARIA**. Gaurko egunez daukagun propagandan, Gobernuak, errepideez hitz egiten digu. Gero eta gastu gehiago eta hobeak daudela esanaz. Fabrikatzaileak, gero eta kotxe azkarragoak eta seguroagoak azpimarratuz (airbag etab.), ibilgailuei I.T.V. eta beste ezarriaz.

Gidarien zereginez, zenbat hitz egiten da?



Ez gara konturatzen, istripu gehienak, gidarien hutsegitegatik izaten direla.

Jakina da, egunean 2.000 lagun hiltzen direla munduan zirkulazio istripuetan, eta 50.000 zauritu larri. Behar bezela, gidaria kontzientziatua dago gai honetaz?.

Ziklistak, Ziklomotoristak, motoristak, kotxe-kamioi-autobus gidariak, eta oinezkoak, zer hezkuntza? Gurpiloholak, patinak edo darabiltzaten lagunak ezin dira galtzadatik ibili, galtzadetan horretarako izendatutako toki, bide edo alde berezirik ez badago; bestalde espaloietan dabiltzanean, oinezko abiaduran baino ezin dira ibili.

Haur, gaztetxo, guraso askok badakite esate baterako zirkulazio-legediko arau hau?

Joakin Gaztesi



Eusko Jaurlaritzako Kultura sailak diruz lagundutako aldizkaria



Aldizkari honetako Elgetako Udalaren laguntza jaso du



Aldizkari honetako argitaratzailea

## GOIBEKOKALE

**Argitaratzailea:** Elgetako Gazte Asanblada. Gudarien Bidea 2. Elgeta 20690. **Zuzendaria:** Iban Arantzabal **Koordinatzailea:** Ar Gillegi. **Erredakzio kontseilua:** Iban Arantzabal, Haritz Gallastegi, Ana Gillegi, Oxel Erostarbe eta Bittor Gallastegi. **Erredaktoreak:** Gorka Arizmendiarieta, Olaia Jimenez eta Eider Saratsua. **Maketazioa:** Bittor Gallastegi. **Komikia:** Igar Arizmendiarieta. **Horroroskopoa:** Aitor Ubera. **Kolaboratzaileak:** Eguzkiñe Odriozola eta Joakin Gaztesi. **Administrazioa:** Es Retolatza eta Susana Jimenez. **Publizistak:** Onditz Villa eta Eider Etxaniz (Tel: 789085, faxa:789043). **Banaketa:** Ikastola. **Tirad** 600 ale. **Inprimategia:** GERTU koop. (Zubillaga Oñati). **Copyright-a:** EGA. **Lege-Gordailua:** SS-475/95. **ISSN:** 1135-3538.



## PATXIK EKIPO BERRIA: TANDEN

Patxi Bouzasek ekipo berria du aurten. Arrasateko Tandem etxeak laguntzen dio behar duenean eta oso pozik dago orain bizkorragoa izateko aukerak dituela eta. Uberarrek antolatutako proban ere parte hartu zuen Patxik. Lasterketan 108 partehartzaile izan ziren eta horien artean sei bat neska. Ikusle kopurua ere handia izan zen eta Patxik bera animatzen egon zirenei eskerrak eman nahi dizkie. Herriko bi ordezkari izan genituen eta bai Oierrek eta bai Patxik esan-

dako moduan nahiko ondo aritu ziren. Patxik nahiko zorte txarra izan zuen, "nerea ez zen bizikleta batekin aritu beharra, ongi prestatu gabeko bizikleta, katea irten zitzaidan, jausi ere egin nintzen..." hala eta guztiz ere Azkonabitxatik Uberara 4 minutu eta 25 segundu besterik ez zituen behar izan. Irabazlea Juanan Arrinda izan zen eta 3 minutu eta 44 segundu nahikoa izan zituen bidea egiteko.

Anbulantziek nahiko lan izan zuten. Istripu horien gainean

Patxik zer uste duen jakin nahi izan dugu eta beretzat "esperientzia gutxiko jendea badabil horrelakoetan baina beste zati handi batek teknika, bizikleta onak eta batez ere egin beharreko bidea ondo ezagutzen dugu. Guzti hori argi izanda hartzen dugu parte eta norbait jausten bada ere orokorrean huts mekani-koen erruz izaten da. Orain ekipo berria dela eta hobeto prestatutako bizikleta izango dut eta askoz azkarragoa izateko aukera." Guk zorte onena desiratzen diogu.

## KALITATE HAUNDIKO PANTAILA HANDIA AITOR ELKOROREN PARTIDUA IKUSTEKO. ARRATSALDEAN OMENALDIA

- Maiatzak 11n danok Asentziora.-

Hirugarren urtez Asentzio Eguna antolatuko du Elgetako Gazte Asanbladak. Aurreko egunetik hasiko da jaia, Gaztetxean Deabruak Teilatuetan eta Marruma taldeek eskainiko duten kontzertuarekin.

Aitor Elkorok egun honetan jokatu duen partidua ikusteko aukera egongo da Asentzion jarriko den pantaila handian. Antolatzaileek esan digutenez teknikoek partidua ondo ikusiko dela ziurtatu dute. Beraz partidua ikusi eta egun

pasa Asentzion egiteko gonbitea luzatzen du aurten ere EGAK. Eguraldia lagun bada b e h i n t z a t ondorengo da egitaraua:

- 10etan, Arrantza txapelketa.

- 10:30etan,

Etxaflero jurtiketa eta Asentziora oinez igotzeko aukera Elgetako trikitilari eskolakoekin.

- 11:00 Meza.

- 11:30etan, Salda eta Txorizoa banatuko dira. Aitor Elkoron partidua ikusteko aukera pantaila handian.

- Partidu ostean, Txalaparta eta Dantzak-Polkak.

- 14:30etan, bazkaria txarangak alaiturik. (txartelak salgai daude).

- 17:30etan EGAKo errifaren zozketa.

Egun guztian zehar bolatokia zabalik egongo da.

- 19:00etan, pelotazaleen omenaldia Aitor Elkorori eta ondoren poteo herrikoia txarangak alaiturik.



Finalerdietan giro hau. Hilaren 11n Asentzion finala ikusteko aukera.

itzulpenak  
lanak ordenagailuz  
interpretari lanak  
transkripzioak



Tel: (94) 6583017  
6821294

GRUPU  
**IFA** Produkturik onenak,  
prezio onenean

Tel:  
76 80 98.

**ALDI**



## GIZARTE LAGUNTZAILEA EZAGUTU ASMOZ

-Jende askok, ezjakintasunagatik, ez du bertara jotzen laguntza bila-

Zer da gizarte laguntzailea? Zein da bere lana? Zein arazoren aurrean jo behar duzu gizarte laguntzailearengana?...Galdera hauek eta beste asko egingo diezue zuen buruei gizarte laguntzaileaz hitz egiten denean.

Gizarte laguntzailea entzuten dugunean berehala arazoak etortzen zaizkigu burura. Hau ez dela guztiz egia esan behar da. Jende asko eta askok informazio leku bezala erabiltzen baitu baliabide hau. Asistente lanak eremu zabala du Elgetan lan hau egiten duen Karmelek adierazi digun bezala: "Alde batetik jendearekin zuzenean egoten gara edozein laguntza edo informazioa eskaintzeko eta beste alde batetik beste erakunde batzuekin elkarlana egiten saiatzen gara". Bertara joaten den jendeari "laguntzen saiatzen gara eta guk zuzenean laguntza hori ematerik ez badugu orientazio bat ematen saiatzen gara zein lekutara joan behar diren eta norekin egon beharra daukaten esaten diegu".

Astelehenetan eta ostegunetan egoten da 8:00etatik 15:00etara.

Udaletxean duen langelan gauza askori buruz informazio asko daukatela esan behar, "Alde batetik dirulaguntzei buruzko informazioa ematen da eta honen barruan programa edo laguntza ezberdinak izaten ditugu. Adibidez pobrezia planaren barruan dirulaguntzak egoten dira". Pobrezia kasuak, dena den, ez dira asko ematen ingurugiro honetan zorioenez "inguru hauetan lan kontua

nahiko ondo dagoelako. Sortzen diren kasuak oso puntualak dira". Besteak beste etxeen alokairuetan, etxeko mantenimendu gastuak, eta horrelako gastuak. Laguntza hauek aurrera eramateko beti ere irizpide batzuk jarraitzen dira, "Familia bakoitzak duen diru sarrera ikusten dugu eta horren arabera dirulaguntza ematen zaio".


Elgetan gizarte laguntzailearen lana hirugarren adineko jendearengana zuzentzen da gehienbat. Karmelek adierazi digunez "Etxez-etxeko zerbitzuak deitzen direnak lantzen ditugu. Pertsona edo familia batek zerbaiten edo norbaiten beharra baldin badute (ohetik jaikitze, errekauek egiteko...) pertsona bat bidaltzen dugu ordu konkretu batzuetan lan horiek egiten laguntzeko. Honetaz aparte residentziara joateko eskaerak tramitatzen dira, tele-alarma jartzen ditugu bakarrik bizi den pertsonari segurtasuna emateko".

Beharretaz gain norberaren gozamenarako diren ekintzak ere bultzatzen dituzte. Aldundiarekin edo Inersioak aterako ekintzak bainuetxeak, Benidormerako bidaia...

Tratu txarrak eta eraso sexualak jasaten dituen pertsonentzako ere eskaintzen du laguntza. Kasu hauek aholkularitza juridikoekiko zerbitzu bat dago, bere eskubideak zeintzuk diren jakitzeko eta bananduz gero zein egoeratan geldituko den jakiteko erabiltzen direnak gehienbat. Laguntza psikologikoa lortzeko aukera ere badago. Dena dohainik izaten da. Elbarritasun kasuetan ere laguntzak egoten dira.

Bestalde hitzaldiak eta ikastaroak ere antolatzen dira. Jendeak hitzaldi hauekiko duen erantzunaz galdetu genionean, Karmelek positibotzat jo zuen, "Hitzaldiak nahiko positiboak izaten ari dira jendearen erantzuna ona baita, bai partaidetza aldetik eta bai aktibitate aldetik".

Bukatzeko, elgetarrei zalantza bat izanez gero beldurrik gabe berarengana jotzeko aditzaera eman zuen Karmelek, "Irtenbidea bilatzen lagunduko diegu".



Karmele astelehen eta ostegunetan egoten da Elgetan.

Berezitasuna:  
Buztana.  
Pintxo gozoak  
otartekoak.

**BOLATOKI**  
TABERNA-JATETXEA

tel: 768284

**IBAIBA-  
RRIAGA**  
GARRAIOAK

Tel: 768072  
Salvador zeharbidea 2  
ELGETA

**M<sup>A</sup> Karmen  
Lenzeria**

Lentzeria eta  
kosmetika gaiak

Salvador zeharbidea.  
Tel: 789040



## Pagomendi Elkarte bazkaria

Pagomendi Elkarte-ko bazkideek Elkartearen eguna ospatuko dute Langileen Egunarekin batera. Goizean goiz pago adarrak ipiniko dituzte ate inguruan soziedadearen izenaren jatorria gogoratzeko (Pagomendi Goimendi aldera dagoen mendia da, gaur egun pinudi bihurtua, baina elkarte sortu zenean, orain dela 41 urte, oraindik pagadi ederra zena). Eguerdiko hamabiterdian meza ospatuko da hildako sozioen alde, eta 2,30ak aldera bazkaria. Bazkalostean ez da faltako girorik soinu eta kantuen artean.

## Goimendiko Jaiak

"San Migel Monte" jaiak ospatzeko antolatuta dute aurten ere egitaraua goimenditarrek. San Migel maiatzak zortzian bada ere maiatzeko zubia aprobetxatuko dute jai egiteko. Hilaren 3an arratsaldeko zazpiterdian meza izango da San Migel ermitan eta ondoren elizaurrean luntxa egongo da inguratuko diren guztientzat.

Gabeko bederatziretan Kanpazar Jatetxean bertan eta kanpoan bizi diren goimenditarrek afaltzeko bilduko dira. Ondoren dantza egongo da gorputzak ahal duenerate, txiste eta bertsoak ere ez dira faltako "espontaneoen" eskutik.

## BERGARAKO UDALETXEAK ONARTU DITU 1997RAKO AURREKONTUAK

Apirilaren 21ean egin zen Plenoan Bergarako Udalak aurtengo aurrekontuak onartu ditu. Guztira 1.875.410.000 pta izango da aurten aurrikusten diran gastu, inbertsio, amortizazio eta abarretarako diru kopurua. Dirutza horretatik % 9,84 dagokio Auzoak sailari, danera 184 milioi.

Aurrekontu hau iazkoaren antzekoa oinarrian, helburu berberak eduki baitira kontutan berau egiterakoan, hau da, gastuari eutsi eta zorra murriztu.

### Angiozarren egingo diren lanak

Aurten burutuko diren lanen artean bi oso garrantzizkoak dira Angiozarrerako, izan ere Beheko kaleko zabaltze lanen eta frontoia-

lehen faseak egingo baitira. Beheko Kalea aurten zabalduko da, baina ez zaio zolu berririk egingo bertan egitekoa den etxe berria bukatu arte, beraz egingo diren lanak zabalera berdina kaleari eman eta hormak egitea izango da. Frontoiarentzat 20 milioi daude zehaztuta eta honen kasuan ere lehen faseari ekingo zaio. Lehen fase honetan teilatuaren egitura jasoko da, bigarren aldi batean aldagela, biltegi, eta beste hornikuntzak egingo direlarik.

### Martxoko *Goibekokalen*

Zabaletako bolatokiarentzat diru laguntzarik ez zela egongo adierazi bagenizuen ere, azkenik onartu da aurrekontuetan gastuen %50 Udalak ordaintzea. Aipatu behar da lan hau eginga dagoela eta prest Gipuzkoako Bolo Txapelketako "etapa" izateko.

## ANGIOZARKO BIRA

Zikloturistentzat ohizko irteera bihurtu den "Angiozarko Bira" datorren maiatzaren batean korrituko da 120 km-ko luzerarekin. Bertan parte hartzea nahi dutenak goizeko zortziretan Angiozarko Plazan Elkar-

tuko dira. Ondoren Oñatitik pasatu eta Udana igoko dute handik Beasain eta Ordizia herri guneeetatik pasatzeko eta Larraitz gainera abiatzeko.

Larraitzen egingo dute aurten "abituailamendua", bertako jate-



1992ko Angiozarko Biran parte hartzaileak Kanpazarren.

txe baten bapo hamarretakoa egin ondoren aldapan behera Alegiaraino jeitsiko dira etxeruntz itzultzen hasteko. Itzuleran ere Udana igoko dute eta Angiozarrera heldu ondoren Ortzi Jatetxean bilduko dira nahi dutenak bazkaria egiteko, hori bai, bazkaltzeko gelditu ahal dutenek izena eman behar dute Ortzin bertan.

Taberna Zaharra  
jatetxea

Bazkari eta afariak tel: 76. 21. 21

Angiozar

Goio Sarasua

Igeltzeritza lanak

Teilatuak

Sukaldeak





Etxaurreak

Komunak

Otzango Behekoa Baserria. Tel: 860156



# LEHIAKETA



Errezegia jarri dugula dirudi, izan ere sekula baino karta gehiago jaso ditugu eta. Horixe Aitor zela, nola ez. Inguruko komunikabide guztietan ikusi ahal izan dugu elgetarra eta gurean ere lekutxo merezita zuen. Aitorrek gustora asko oparitu du bere kamista *Goibekokaleko* irakurleren batek arro jantzi dezan. Gainera irabazlearen izenean zinat digu Aitorrek. Ez ahaztu birentzako afaria ere baduela kartatxo idaztera animatu eta nor den igarri duenak. Baina luzatu gabe irabazlearen izena xxxxxxxxxxxx da. Zorionak.

Guk afariak oparitzen jarraituko dugu eta horretarako pertsonaia hau nor den asmatu beharko duzue. Aitor Elkoren ostean herriko famatuenetarikoa bat dela esatera ausartzen gara errezagoa izan dadin. Erraza ezta?


Idatzi *Goibekokalera*, Salvador 2 Kultur Etxea. **zorte on!!!!**

Izena eta abizena: \_\_\_\_\_ ✂

Erantzuna: \_\_\_\_\_

Bizilekua eta telefonoa: \_\_\_\_\_


## KOMIKIA





## Elkartietan andrak bai ala ez?

Elgetako elkarte gehixenetan andrak ez dake sozio izateko eskubideik, hori aspaldiko kontua da. Oiñ dala gutxi sartu da Gure-Bordan lehenengo andria sozio. Hori dala ta, jentian iritxi diferentiak hemen batzia politta pentzau jaku. Elgetan badia ondio pare bat elkarte emakumiei sozio izaten lagatzen ez dotzenak.



Jubilatua (75 urte)

Guk hasieran ez sartzeko legia euki giñuan, baiña gero hau herri txikixa zelan dan ba andrei sartzen lagatzeko legia eiñ giñuan oiñ hogeï urte. Aurrera begira oiñ sartutako gaziak ez dakit ze pentzauko daben baiña guk lehen gaozenok ez, lehen be euki genduan hori ta ezetzak urten zaban.




Jubilatua (75 urte)

Nik baietz pentzau tzen dot. Beti gizonak egoten dia ta andrak be igualeko eskubidia dake. Neri elkartietan andrak sartzia ondo pentzatzen jata, ta danetan sartu biako lukie.




Etxekoandria (44 urte)

Bai, zeaittik ez ba? Andrek eskubide bardinak dakauz. Elgeta ta kanpoko herrixetan be elkarte askotan gizonak bakarrik dia soziuak, hori aldatzen juan bihar da.




Bihargiña (52 urte)

Nere ustetan holako elkartietan ta danian danak egon biako leukie batera. Neretako soziuak andrak ta gizonak batera izan biako leukie.



Jubilatua (69 urte)


Nik baietz pentzau tzen juat, ez jakixat zeaittik ez. Nere ustez bai, nik ondo ikusten juat, andrak igual dittuk neretzako. Normalian gizonak dia ta andrek be berdin bihar dabe.



Ikaslia (23 urte)

Andrak sartzia ondo pentzatzen jata, gizonen moduko eskubide berdina daukoulako. Nik uste dot hori aldatzen juan bihar dala.

**HAIZEA**  
**TABERNA**



giro atsegina  
lagunartean  
egoteko.  
Tel: 768256



Elorrio bide z/g 20690 Elgeta  
Tel: 768050-789031 Faxa: 768243

**TAPEM, S.A.**

Trokela eta estanzak  
TROKEL PROGRESIBOETAN ESPEZIALDUAK



♈	<b>Aries:</b> Oingo neurrixan segitzeko janarixa zaindu biharko dok/don.
♉	<b>Taurus:</b> Barri danak bardin ikusiko dittruk/dittun eure onerako.
♊	<b>Geminis:</b> Denbora librea deskantsatzeko ibiliko dok/don.
♋	<b>Cancer:</b> - Denbora librea deskantsatzeko ibiliko dok/don.
♌	<b>Leo:</b> Holako martxan laster hasiko jatsu desgastia gora ta behera.
♍	<b>Virgo:</b> Zekulako exitua eukikok/eukikon zure look barrixa.
♎	<b>Libra:</b> Eure onetik etaratzan saiatuko dittuk, eutsi gogor.
♏	<b>Escorpio:</b> Azken orduko arazo batek hire planak pikutara botako dittuk/n.
♐	<b>Sagitaris:</b> Bonbila batek baino argi gehixau eingok/eingon... Iberdueron kalterako.
♑	<b>Capricornius:</b> Experientzia barrixak ez dia zaharrak baiño hobiak izango.
♒	<b>Acuarius:</b> Noraezian lagako duen problemetan sartuko haiz.
♓	<b>Piscis:</b> Sua baiño geixau berotzen dok/don... kontuz larregi arrimau barik.

## Arrate Saratsua Liburutegiko arduradun barrixa 29 urte

- Ze dala ta hemen biharrian? Udaletxian esan zeben liburutegirako pertsona bat falta zala, juan nintzan ta tokau eñ jatan.

- Zenbat jende ibiltzen da egunero liburutegitxik? Umiak nahiko, hamar bat edo hola, ta nausixauak deberiak eittera ta, hoge bat, hori ona eitten dabenian, txarra eitten dabenian gutxi, oso gutxi.

- Ze edadeko jentia ibiltzen da? 8-11... hortik.

- Ze liburu irakurtzen dia gehixen? Abenturazkuak.

- Irakurri dozun azkenengo liburua? Ikasten nao ta ez dakat denboraik irakurtzeko.

- Liburutegixan daon liburu barrixena? Eusko Jaurlearitziatik etortzen dia gehixenak. Eta zaharrena? Hori bai ez dakatela ideaik pe.

- Ze herri aldizkari dare? Arrasate Press, Berrigara ta Elgoibarren bai behintzat.

- Atzaldian liburutegixan ta goizian? Ikasten.

- Esan esaldi bat. Ni Arrate naiz.

- Zelakua da mutil perfektua? Gauza zerixuena berba eitteko kapaza dan pertzonია.

- Nun ligatzen da gehixau Gipuzkuan ala Bizkaixan? Araban.

- Ze gehittuko ta kenduko zontzake herrixai?

Kendu Kotileuak ta gehittu, gaztiak kanpora ez joateko animaziñua.

- Udia ala negua? Udia.

- Edari bat. Coka Colia.

- Ze janari jaten dozu gustoren? Ensaladia.

- Makillajia noiz? Ixa beti.

- Mutilak maki-llatzia ze pnatzen jatzu? Oso txarto, "marikoneria total".

- Dakazun manixan bat? Kotxian noiala kurbia hartzerakuan bi bidar begiratzen dot.

- Amets bat. Karibera juatia mutil perfektuakin.

- Traste zahar bat. Nere liburuak.

- Argala egoteko formula? Halakua izatia, ez dot eitten ezer.



## ZABALA

Lasao 6 Elgeta  
Tel: 768075-6 768225  
Faxa: 768201



## HERMANOS S.A.

EHIZARAKO  
ESKOPETA EGILEA



## GAZTIAK: LAN HANDIA ETA IRABAZI GUTXI

Gaztaia beti izan da estima handiko jangaia. Garai honetan hainbat eta hainbat dira baserriarrei gaztaia eskatzen dieten pertsonak afalostean jateko, gonbidatu bat datorrenean eskaintzeko... baina inork gutxi daki -batez ere gazteen artean- gaztaia egiteko zein prozedura jarraitu behar den. *Goibekokalek* gaztaigintzari buruz zerbait gehiago jakiteko asmotan Azula baserrian hainbat urtetan gaztaiak egiten dabilen Enrikerengana jo du. Enrike 50 urte doa gaztaiak egiten eta ez du inoiz jornameko lanbiderik izan.

Elgetako herria betidanik baserri girora oso lotuta egon bada ere azken urteotan egoera asko aldatu dela esan behar. Adibide gisa esan, hilaren hasieran, Azulara

joan behar genuela eta ez genekiela nondik joaten zen ere. Azulan aurkitu genuen Enrike. Azken hamar urte hauetan han bizi da eta gu joan ginenean bere eguneroko lanean aurkitu genuen, gazta egiten. Zertara gindoazen esplikatu ondoren gaztaia nola egiten zen galdetu genion Enrikeri: "Gaztaia egiteko


lehenengo esnea epeldu behar da. Epeldu ondoren liarra ematen da esnea gogortu dadin. Denboraldi bat gogortzen utzi ondoren gaztaia apurtu behar izaten da. Apurtuta



Ardi asko izan arren bakoitza ondo bereizten du Enrikek. "Gehienek izena ere badute."

dagoenean batu egiten da ogi masa izango balitz bezala eta horrekin gaztaia egiten da".

Elkarrizketa hau besteekin alderatuz oso ezberdina izan zen. Besteetan elkarrizketatua mahai baten aurrera urrarazi eta prestatutako galderak egiten badizkiogu ere oraingo honetan guztiz ezberdina izan zen. Enrikek bere lanak egiten zituen bitartean guk prestatutako galderak egiten genizkion, gaztaiak egiteko erabiltzen duen prozedura arretaz jarraituz. Gaztaiak egiten hasi zen bitartean berau egiteko sekreturik ba al zegoen galdetu genion: "Ez, ez du inongo sekreturik. Ofizio denek duten sekretua du honek ere, eskuhartzea. Ikasitakoan lan guztiak dira errazak baina ikasi egin behar".



Ardiak korta ezberdinetan izaten dira. Hemen beren bildotsekin.

ELKORO TORLOJU LANTEGIA

DEKOLETAIA ETA  
ELJAZIO SISTEMAK

Berraondokua z/g 20690 Elgeta  
P.K. 256 - 20600 Eibar (Gipuzkoa)  
Tel: 943 768200 - 768125 Faxa: 768203





Gaztaiak, nahiz eta urte guztian zehar gure etxetan edukitzen ditugun, ezin dira urte osoan egin ardiek esnerik izaten ez dutelako. Gaztaiak egiteko garaia hiru hilabete ingurukoa izaten da Enrikek esan bezala "Inguru hauetan, gaztaia egiteko garaia otsailaren erdialdera hasten da eta San Juanetan bukatzen da". Hiru hilabete hauetan ere

**"Gaztaiak ez du inolako sekreturik. Ofizio denek duten sekretua du, eskua hartzea. Ikasitakoan lan guztiak dira errazak baina ikasi egin behar"**

gaztaia egiteko esne kopuru ezberdina izaten da, "Gaur egun gaztai bat egiteko sei litro behar izaten ditut. Guzti hau garaia araberakoa izaten da. Garai honetan ardiak esne gutxiago ematen du baina lodiagoa. Orain dela hiru hilabete zazpi litro beharko nituzke gaztai bera egiteko", adierazi zigun Enrikek. Nire lagunak eta biok arreta handiz jarraitzen genion Enrike ar-

eta hilabete batetara esne gehiago izaten dute hiru hilabete pasatu eta gero baino. Horregatik orain 11 edo 12 gazta egiten ditut egunero baina hasieran 14 egiten nituen".

Ez pentsa Enrike baserrian bizitzeagatik eta herrira gutxitan joateagatik gaur egungo berrien

tzaiaren esane. Guk ardiez ezer gutxi ulertzen dugunez ardiek ematen duten esne kopuru zergatik izaten den ezberdina galdetu genion, "Guzti hau bildotsen eraginez izaten da. Bildotsak jaio



Liarrarekin naturala erabiltzen du Enrikek, etxekoa.

berri ez dakienik. Besteak beste bera gazta egiten ari zela eta guk gure galderetan tartetxo bat egiten genuen bitartean azkenaldian protago-

nista nagusia den Aitor Elkorozen hitz egiten genuen, "Bai, neuk ere entzun nuen partidua irratiz. Hasieran Errandonea gogor aritzen baina azkenean Aitorrek lortu zuen garaipena". Parentesi hau aprobetxatuz bere bizitzaz zerbait gehiago jakin genuen. Besteak beste Gaztaiak egiten zenbat urte daramatzan galdetu genion, "50 urte daramatzat gaztaiak egiten. Mutikotan ikasi nuen aitari eta amari begiratuta. Gurean beti egon izan dira ardiak. Honezkero milaka gazta egindakoa naiz ni", esan zigun Enrikek. Artzai hau baserriko peto-petoea dela argi dago baina jende askorentzat eta batez ere kale-umentzat sinesgaitza edo behinik-behin arraroa suertatuko zaion berezitasun bat du Enrikek. Berak aditza eman zigun, "Ni baserriko lanetik bizi izan naiz beti. Ostiango journalik irabazi gabekoa naiz ni", eta gaur-egun horrelako-



Pisuak gaztaren ura ateratzen laguntzen du. Hamabi ordu inguru behar ditu.



**IRAMA**

24 orduko zerbitzua  
mensatel: 900282828  
abonatu: 247262  
tel: 789057-768025

Instalazioak eta mantentze lanak

For For For For For For For For


**kalitate kontrola**

**piezei azken ikutuak**

Salbador 19 behea Tel.: 76.80.38

For For For For For For For For





Eskuartean lanaren ondorengo saria.

rik egitea ez da lan erraza. Gai berberarekin jarrituz zera adierazi zigun artzai jator honek: "Kaletar bat ezin da bizi artzai batek irabazten duenarekin. Guk ez dugu Kaletar batek dituen gastuak eta horregatik bizi ahal izan gara. Ez dugu txikiteorik egiten...hori bai afariak egiten ditugun apurretan oso onak egiten ditugu".

Bere bizitzari errepasotxo bat eman eta gero berriz ere gaztaiarekin jarraitu genuen. Ehun arditik gora dituen artzai honek teknologiaren aurrerakuntzak gaztaintzan ere eragina izan dutela onartzen du, "Teknologiak asko aldatu du gaztaiak egiteko era. Lehen dena eskuz egiten zen eta orain berriz hainbat tresna daude". Hamaikak eta erdiak ziren eta Enrikerekin ordu eta erdi hitz egiten egon ondoren elkarriketa bukatzeko momentua heldu zen. Elkarrizketa bukatu aurretik gaztaia egiteko prozesuan azken eginbeharrak ikusteko aukera izan genuen. Ogi masa balitza bezala gazta hartu eta pote batzuetan sartu ondoren prentsara eraman zituen Enrikek, "Prentsana gutxi gora-behera hamabi ordu eduki behar dira duten likido guztia botatzeko. Ondoren beste hamabi ordu gatzurretan ipini eta azkenik sikatzen lagatzen da. Hilabete laga behar da sikatzen saldu aurretik".

Azken adierazpenak entzun ondoren hain ondo tratatu zigun Enrikeri eskerak eman eta beste elkarrizketa bat egitera abiatu ginen. Bi orduetan ikastola egun baten baino gehiago ikasi genuenaren sentazioarekin geratu ginen. Ah! eta hurrengoan ez gara Azulara joaten galduko.

Antonio Rodrigues Da Cruz

Galdaragintza arina

**IAPAM**

Soldadura homologatuak

Hoditeria Errementeritza

BERRIONDOKUA INDUSTRIALDEA, 8 - ELGETA  
Tel: 76 81 01 Faxa: 78 90 14

Tel: 76 81 31

M<sup>a</sup> Jesus Arrazola

**VIVO**

Janari Jendenda

**OSTATU JATEXKA**

Gudarien Bide  
Tel: 76 80 23  
ELGETA

Eguneko menua 800 pzta.  
Karta.

**HARATEGIA**

ASTI

San Roke 6  
Tel: 768168.


7  
L  
E  
A  
P  
A  
9  
M  
D  
E  
9  
9  
A

M<sup>a</sup>  
**ESTHER**

Tel: 76 81 67



**TEA MENTAREKIN**  
**Sukaldaria: Joseba Elkoro**  
**Ozkarbi Elkarte**




**NOLA PRESTATU:**

- Ontzi batean ura irakiten ipini.
- Te ontzira bi eskutakara te bota eta irakindako uretik apur bat gehitu, tea zabaldu eta garbitzeko.
- Gehitutako ur hori ez da edateko beraz, kendu egingo da. Prozesu hau bi aldiz errepikatu.
- Bustita daukagun teari, menta fina eta bi koiladakada azukre gehitu.
- Tea, menta eta azukrearekin egindako nahaste honi ur irakina bota teontzian goraino.
- Teontzia su baxuan ipini eta irakindakoan edateko prest egongo da.

**GOMENDIO ETA BITXIKERIAK:**

- Menta fina batzeko orduan artaziekin moztu eta uretan garbitu.
- Infusio Marokkiarra da.
- Marokkiarrek infusio hau txingarretan egiten dute beraz prozesua askoz luzeagoa izaten da.
- Sagardoa bezala zerbitzatzen da edalontzietan eta tragoska txikitari eraten da. Kantitate txikitari hartzen da.
- Marokkon infusio honen prestaketa zeremoniotsua izaten da eta familia bakoitzeko pertsona jakin batek prestatzen du.
- Jarrialdi bakoitzean, hiru aldiz errepikatzen da infusioaren prestaketa.
- Marokkon orduoro eta lagunarteko momentuetan hartzeko ohitura dute. Bazkalostean pastekin eta goxokekin hartzeko aproposa da.
- Udaran freskagarria da.
- Infusio hau lasaigarri bezala hartzen da.



**OSAGAIK:**

- Ura, menta fina, te sikua eta azukrea

**LENIZ**  
**AUTO ESKOLA**

Arana, 13 Tel: 714186  
**ESKORIATZA**

Aldai, 9 Tel: 794604  
**ARRASATE**

**ANA LIBURUDENDA**

Zatoz beste dimentsio batetara!

Tel: 768078



## ELKORO FINAL HANDIRA

-Errandonea beratarrari 22-14 irabazi zion finalerdian-

Aitor Elkoro buruz-buruko finalerako sailkatu zen Donostiako Atano III.ean Iñaxio Errandonea-gainditu ondoren. Txapelketa honetan jokatu duen partidurik gogorrena izan zen Aitorrentzat. Errandoneak ez zion inolako erraz-tazunik eman. Partidu hasiera nahiko txarra izan zuen Elgetako pilotariak, Errandoneak bere sake-az baliatuz eta inork espero ez zuen taktika erabiliz -pelota atzeratuz arriskatu gabe- Elkoro ustekabeen hartu baitzuen. Momentu horretan 7 eta 3ko emaitza genuen markagailuan. Momentu horretan Elkoro-ko sakea berreskuratu zuen eta partiduak beste norabide bat hartu zuen. Aitor 11. kartoiraino joan zen jarraian partidua dominatzera pasatuz. Hortik aurrera partiduak hasieran uste zen bidea hartu zuen, Errandonea atzeko kuadroetan pilota mugitu ezinik eta Aitor jo eta jo.

Maiatzaren 11an Atano III.eanean jokatu den finalean Arretxe izan go du aurrez-aurre. Finala irabazi edo galdu arratsalde horretan bertan omenaldia egingo zaio Elgetan.  
**AUPA AITOR!**

**Ubera anaiek zorte ezberdina Deba Arroko finalean**

Nagusietan Aitor Uberak txapelketa irabazi bazuen ere, bere anaia Xabierrek ezin izan zuen aurreko urtean irabazitako txapela berriz jantzi.

Jaialdiko bigarren parti-

duan Xabier Uberak eta Antxia II.ak Laskurain eta Arrietaren aurka jokatu zuten. Partidua oso gogorra izan zen, hein batean behintzat frontoiaren lastasunagatik, eta 21na berdindu ondoren eta tantu gogor eta polit baten ostean soraluzetarrak lortu zuten garaipena.

Hirugarren partiduan, Berraondok eta Aitorrek Idiakez eta Muruamendiaraz izan zituzten aurrez aurre. Partiduaren lehen erdia aurreko partiduaren antzerakoa izan zen, gogorra eta parekatua. 13nako berdinketatik aurrera ordea guztiz aldatu zen partidua. Uberak arriskatu egin zuen eta ongi atera zitzaion. Bere erremateei esker 22 eta 15 irabazi ahal izan zuten.

**Arantzeta da 4 t' erdiko txapelketan jarraitzen duen bakarra**

Eñaut Arantzeta da Elgetako txapelketan aurrera jarraitzen duen pilotari bakarra. Orain arte jokatu dituen bi partiduetan ez du arazorik izan bere bi aurkariak gainditzeko. Lehenengo partiduan Goiburu gainditu zuen (22-14) eta bigarrenean berriz, Errasti (22-11). Txapelketan ari ziren beste bi elgetarrak kanporatuak izan dira dagoeneko. Peñalverrek 22 eta 6 galdu zuen Lakaren (Bermeo) aurka eta Barrigonek berriz ezin izan zuen, txapelketan jokatzen zuen hirugarren partiduan, Martin gainditu (22-6). Elgeta batentzako nahiko balantze kaskarra.



Aitorrek bikain jokatu zuen Deba Arroko finalean.

**EROSLE**  
  
**M. Asun Agirre**  
Salbador 26. Tel: 768190



**URONDO**  
elektrizitatea

- \* Elektragaiak
- \* Instalazioak
- \* Automatismoak
- \* Proiektuak
- \* Argiztapena
- \* Bobinaketak

Musakola, 26. Kataide industrialdea 5. Pabiloia. 214 postakutxa.

Tfnoak: 797815/771042 Faxa: 771476 ARRASATE.



## FABORITOEK ESKUAN DUTE FINALERDIETARAKO SAILKAPENA

Liga amaitzeko bost jardunaldi falta diren arren, esan daiteke, hasiera batean finalerdietan sartzeko aukera gehien zuten taldeak izango direla finaleko postu bat lortzeko asmotan.

Angiozarrek, Txapelak, eta Bar Paseok puntu bat lortuz gero matematikoki sailkatuak egongo liritezke eta Urienek azkenaldian ematen ari den mailan jokatzeko jarraitzen badute ez dute inongo arazorik izango sailkatzeko. Atzean dauden taldeen artean Luzelekrikanpaluk bakarrik ditu sailkatzeko aukera gutxi batzu, beste hiru taldeek aukera guztiak galdu dituztelarik. Aipatzekoa da, aurten Luzelek. egiten ari den txapelketa ona, aurrean dabilzan taldeei aurre eginez. Azken urteekin alderatuz beste itxura bat ematen ari da eta horrela jarraituz gero datozen txapelketetan finalerdietara sailkatzeko aukerak izango dituzte. Hori bai,

kantxan duten jarrera desegokia aldatu egin beharko dute.

Azken jardunaldiari dagokionez esan, ez zela ezusteko handirik izan eta partidu haseran faborito zirenak lortu zuten garaipena.

Lehenengo partidua neskek jokatu zuten, Ri-Rauk eta Txalaixok hain zuzen ere. Partidua ordu erdiko atzerapenez hasi zen eta lehenengo zatia epailerik gabe jokatu zen. Gero "diskriminatuak" eta "kasurik" egiten ez zaiela esango dute; normalean. Azken emaitza hutsnako.

Bigarren partiduan Urien eta Patxik jokatu zuten. Durangaldekoek ez zuten arazo handirik izan partidua irabazteko. Hirugarrena Txapelakoen eta Alferrakekoen artean jokatutakoa izan zen. Alferrakek askoz hobeto jokatu bazuen ere batzutan Koldoren (atezaina) lan onari esker eta bestetan izan zuten zorte txarragatik ezin izan zituzten txapeldunordeak gainditu. Azkenean 3-1eko emaitzaz bukatu zen partidua.

Azken partidua Luzelek. eta Bar Paseok jokatu zuten. Partidua nahiko parekatua izan zen baina bigarren zatian sartutako gol bati esker txapeldunek aurrea hartu zuten markagailuan azkenean 2 eta 0 irabaztea lortu zuten. Partidu amaieran Luzelekrikanpaluko jokalaririk oso haserre zeuden arbitroaren lanarekin.

Taldea	J	I	B	G	P
Angiozar	10	7	2	1	16
Txapela	11	8	0	3	16
Bar Paseo	11	7	1	3	15
Urien	11	6	1	4	13
Luzelek.	10	4	0	6	8
Patxi Taberna	10	1	3	6	5
Alferrak	9	2	1	6	5
HHH	10	1	2	7	4

Taldea	J	I	B	G	P
Joixon Bertan	5	4	1	0	9
Ri-Rau	5	1	2	0	4
Txalaixok	3	0	1	2	1

### "ESTAMPA"-k ez du finala jokatu

Partidu erabakiorrean "Pescaderias Pro"-ren aurka 44-55 galdu ondoren "Estampaciones Elgeta"-k finalerako sailkatzeko ia aukera denak galdu ditu.

Partidua gogorra izan zen hasiera-hasieratik. Elgetakoek saskipean altuera falta handia bazuten ere - Sergiok eta Igorrek ez zuten jokatu- "Larra"-k egindako lan bikainari esker eta Bitto- rrek sartutako hiruko saskiratzei esker puntu bakar bateko desabantailaz amaitu zen lehen zatia (29-30). Bigarren zatia bide beretik hasi zen eta zati horretako erdirarte emaitzari eutsi ahal izan zieten (42-44), baina hortik aurrera, ordeko jokalarien faltagaitik gehienbat, ezin izan zuten partidua erritmoa jarraitu.

Orain "Pescaderias"- en huts bat beharko dute finalera sailkatzeko, baina gauzak nola dauden ikusita oso zaila izango da. Nahiko tamalgarria da finala eskuan izan eta ez sailkatzea, baina oraindik tristeagoa gertatu den modua.



### KONTXI ARRANDEGIA

Salbador 5 Tel: 768009

**BILTEGI  
DENDA**

Zugandik gertu behar dugun beste

Salbador 24 Tel: 768206

**Hozkailuak eta izozkailuak aire giro-tua.**

**LAN HOTZ**

Salbador 21 Berraondokua 7  
Tel eta faxa: 78 90 46

Kartetan jokatzeko giro egokia

Tel: 768093

**Patxi Taberna**



## ANGIOZARKO BASERRIAK AUZOZ AUZO

Angiozarko baserrien sail honi hasiera ematerakoan aurrez kokapen ataltxo hau egitea nahi izan dugu, bertakoek nola ikusten duten bizi diren Bailara hobeto ulertzeko asmoz.

**Auzoa, baserri antolaketaren oinarri**


Elgetako baserriak ezagutu ditugunean ere baserriak auzo edo auzunaka bilduak azaldu zaizkigu eta Angiozarren ere horixe gertatzen da: zortzi auzotan banaturik dago orokorrean "Angiozar" esanda ulertzen duguna. Hauek dira auzoen izenak: Asentzio, Azkuneta, Errekaldia, Goimendi, Kalia, Mainddao, Parteitti eta Zabaletamendi. Zortzi auzo hauek osatzen dituzten baserriak era desberdinetara azaltzen zaizkigu, batzu sakanatuta mendi hegalean zehar, Goimendi, Asentzio eta Zabaletamendi bezala, edo bilduta multzo bat osatuz Azkunetan eta Maiddao bezala. Dena den bi modelook nahasian azaltzen dira eta etxe bat auzo batekoa edo bestekoa den jakiteko ez zaio begiratu behar non dagoen kokatuta baizik eta zein den berari dagokion ermita. Horre-

la Jareikotxo baserria Asentzio auzoa osatzen duen baserrietariko bat da, Arrota biekin, Udaixa, eta abarrek batera. Era berean Errekaldia osatzen duten baserriek Bailaran beherantz dauden beste guztiakin batera Aldai -Egia edo San Kristobal osatzen dute, muga non dagoen jakiteko Angiozarko Parrokia osatzean dago. Adibidez Arrota baserriak Angiozar izan ziren 1975. urterarte eta orduetik Elgetako Parrokia dira.

Eliza eta Ermitena garrantzitsua den puntua da auzoen antolaketa honetan, ermitak ematen bait dio nolabaiteko lotura auzoari, etxe guztiak dute zaintzeko ardura, jaiak ere auzokoek ospatzen dituzte eta urtean behin "maiordomotza" etxe batetik bestera pasatuko da aspaldiko ordenari jarraituz. Auzoko norbait hiltzen denean ermitako kanpaia jotzen da aditzera emateko eta gero Parrokiako hil kanpaia. Entiaruko egunean ere auzoko ermitako kanpaiak agurtuko du hildakoa. Horrela, ikus dezakegu auzoak egitura sozial bezala garrantzi handia duela, ermitaren

inguruan dagoen loturaren era berean bideen mantenimenduan, edo errotekin ere laguntzarako eta elkarlanerako bide baitira.

Angiozarko auzoek inguruko ermitak hauek dira: Asentzioko ermita Asen-




Angiozar Bailara Loiti-gainetik, urrutira Irimo eta eskuman Txindoki eta Aralarko mendiak.

tzio auzoan, San Martin de Tours Azkunetan, San Kristobal Errekaldian, San Migel Monte Goimendin, San Migel Parrokia Kalia, Elizamendi Maiddao, San Bixente Parteittin eta San Bartolome Zabaletamendin. Bakoitzak bere jaiak ospatzen ditu nahiz eta iraileko San Migelak izan Angiozarko jai haundienak. Denak ez dira garai berdinekoak, guztietan modernoena Goimendiko San Migel delarik eta bere esistetziaren aipamenik zaharrena Parteittiko San Bixentek delarik. Hauen berri ematen ere saiatuko gara baserriei buruz idazterakoan.

### Etheen egitura

Angiozar Bailaran dauden baserriak egitura berdintsukoak dira: Denak daude ekiladera begira banaka batzuk izan ezik, esaterako Aguleta gainekoa eta Altuna, biak hegoaldera begira. Baserri ia denak bi uretakoak dira, hau da, etxaurretik begiratuta teilatua bi zatitan banatuta daukate alboetara, baina honetan ere ez dute denak legea betetzen, lau-uretara teilatua duten etxe dotoreak ere badaudelarik: Arregi-Torre Parteittin, Altune baserria Goimendin, Askasibar Errekaldian eta Aldekona Azkunetan dira eredurik adierazgarrienak.



Angiozar Bailara auzoz-auzo. Baserriak zenbatuta agertzen dira bertan.



Eta sorrerari begiratu abeltzantza eta nekazaritza lana dute gehienak etxea eraikitzeko arrazoi, baina badira ertaroko istiluetan defentsarako sortutakoak ere: Lamarain, Askasibar, edo Arregi-Torre dira batzu, azken honek gaur egun ikus dezakegun jauregi itxuraren barruan ia oso-osorik gordetzen duelarik ertaroko dorrea, bere saetera, sarrerako ataka eta guzti.

Beraz, auzoz-auzo baserriok aztertzen goazen neurrian saiatuko gara aipatzen duten itxura eta egituratik ateratako ondorioak ere.

## Baserrien izenak

Angiozar Bailaran dauden baserri ia gehienak dauden lekua-rekin lotutako izena dute, toponimoak dira. Horrela, baserri izen bat entzunda dagoen lekua deskribapena ere jasotzen dugu neurri baten: Lasarte, lats (errekaxoa)+arte da; Ugarte, ur+arte; Zabaleta, leku zabal eta eroso edierazten du; Loidi, loa edo lokatza lekua; Altzarrika, alza+erreka; Zabarte, zabar+arte, leku malkartsua.

Beste kasu batzutan baserria dagoen lekua kokapen erlatiboa egiten da: Irube, Iri edo uri+be da, eta horrelaxe dago gainera Mainddaoko etxe multzoaren beheko; Iruain, Iri+goien, Angiozarko kalia baino gorago daudela adieraziz, Handiketxe, handiko+etxe; Gariketxe, Garaiko+etxe; Elizalde eta abar dira bigarren izen multzoa.

Beste multzo bat jabearen edo bertan bizitakoren baten izenetik eratorriak dira: Berrandona, Berraondona da; Aldekona, Aldekoana adierazi nahi du; Migele-na...

Baserri etxeak eduki duen funtzioaren arabera izenak

ere badaude: Jarei, jauregitik dator, palazioa esan nahi du; Arregi-Torre, bere torre edo kastilo funtzioa nabarmendu nahi du izenean; Errotiaga, errota izandako baserri etxea; Bolu, Bolintxo, Askasibar-Bolu, denak errotak edo boluak izandakoak; Gaztelu, gaztelua edo kastiloa du bere izen.

Azkenik, baserriari izena ematerakoan Angiozarren aurkitzen ditugun izen tipiko batzu aiatu barik ezin laga: -kotxo bukatzen baserri izenak. Jareikotxo, Irukotxo, Orbekotxo, Arreikotxo, Zabartekotxo, ... denak aurrez jasota zegoen beste baserri baten izena hartzen dute hasieran, normalean inguruan dagoen baserri batena, eta ondoren -etxetxo gehitzen zaio. Horrela Jau-regiko+etxetxo Jareikotxo laburtuta gelditzen da, Orbeko+etxetxo Orbekotxo bihurtzen da eta bestekin ere berdin.

## Baserriak familien jatorri

Gaur egun ere normala da oso edozeini bere apelidoaz deitu beharrean izen ostean etxearen izena ipintzea. Ohitura hau bai Elgetan eta baita Angiozarren bizi-bizirik dagoena da, eta garai baten gaur egungo apelidoen sorrera izan zen.

Angiozarko etxe askon izena dago apelido edo abizen bihurtuta: Zabarte, Orbe, Lamarain, Loidi, Askasibar, Mendigutxia, Pagadigorri, Zulueta, Irigoien, Altzuaran, Altzerreka, Garraztegi, Sagasta, eta Otxoa de Angiozar adibidez. Horietatik batzuk gaur egun ere irauten dute etxean bertan bizi direnen deituran. Beste batzuk Angiozarren jatorria duten abizen hori ospetsu egin dute munduan zehar. Halako azalpenak ere eman-go ditugu sailtxo honetan.

- Beraz, gaur egungo egoera azaltzeaz gain, saiatuko gara "etxeak" bere izate horretan eduki duen bilakaera historikoa azaltzen, bertan bizi izan direnak bertan ez eze kanpoan ere egin dituztenak azalduz. Gainera, desagertutako baserriak ere aipatu nahi genituzke, batzuk bitxikeriaren ere bazutelarik: Sustraitza baserriak adibidez bi uretako teilatua zeukan, baina alde bateko urak Elorrio aldera egiten zuten, Ibaizabalera, eta handik Bilboko itsasadarrean itsasoratzen ziran, eta beste aldekoak Angiozar errekarra lehenik eta gero Deban itxasoratzen ziran.



Mainddao auzoa Elizamenditik ikusita.



## Lau haur bakarrik

Lehenengo mailan lau haur bakarrik daude baina denak gustora. Seigarren mailakook galdera batzuk prestatu ditugu eta haien erantzunak testu honetan biltzen saiatu gara.

Kaixo *Goibekokale*:

Lau pertsona bakarrik daude lehenengo mailan. Kopuru hau nahiko bitxia irudituko zitzazuelakoan, beraientzako galdera batzuk prestatu, argazkia atera eta artikulutxo hau egitea bururatu zaigu. Zer egiten duten lehenengo mailakoak, zer gustatzen zaien, zein kirol duten gogoko... Guztia ondorengo lerroetan.

Batzuei jende gehiago izatea gustatuko balitzaie ere, lau pertsona eta andereinoa daude. Denak ondo konpontzen dira asko jolasten baitute eta, andereinoaz galdetzean ez baitute kezarik aurkeztu. Lehenendo maila zaila den galdetu diegu eta denek baietz esan dute, beraiek diotenez, onak dira andereinoarekin daudenean, baina, ez pentsa bestela ere gaiztoak direnik. Andereinoarekin ondo konpontzea ez da zaila, hau ere oso formala baita. Andereinoak

ez omen die etxerako lan handirik ematen.

Gaia piskat aldatu eta matematiketan nola konpontzen diren galdetu diegu, eta kenketak eta batuketak egiten dihardutela erantzun digute.


Andereinoak direla eta ez direla ere izan dugu zeresana eta Eiderrek, Elaiak eta Julenek Izaskun dela andereino onena esan digute. Erlaitzek aldiz, Mariaje du gustokoen. Txarrak ere ba omen daude baina derrepente gimnasia hartu dugu hizketagai. Gimnasia egitea non nahiago duten, eskola edo polikiroldegian, galdetu diegu eta denek iritzi bera eman digute. Asko gustatzen zaie gimnasia eta baita eskulanak egitea ere. Eskola apaintzen dute egiten dutenarekin, nahiz eta eskola, barrutik, apaingarririk gabe ere polita dagoela esan.

Iaz igerilekura joan ziren lehenengo aldiz eta denei gustatu zitzairen. **H u r r e n g o** urtean joateko asmoa dute igeri egitera.

Dena ez baina ia dena kontatu dizuegu eta onekin agurtzen zaituztegu.

Agur *Goibekokale*.

Herri eskolako 6.mailakoak



Jesús Marí Montiel  
**ITURGINTZA  
ETA BEROGAILUAK**

Artekale 3.  
Mo: 908773950 Eibar Tel: 700719

**KONPONKETAK SUKALDE  
ETA BAINUGELETAN**



Larunbatetan eta igandeetan bertako babarrunak, saiheskia erreta.

tel: 768273







Argazkia: Antonio Iturrigaztelu

## Dotore dotore eta formal formal

Non aterata dago? Zeintzuk dira? Noizkoa ote da?

Erretratua eskuartean izaten dugunean makina bat galdera etortzen zaizkigu burura baina beti egoten da bateronbat prest erantzunak emateko.

Oraingoan elizan ateratako erretratu bat erakutsi nahi dizuegu, ezkontza baten erretratua. Sarri ateratzen dira horrelako erretratuak eta gero albuten batean gordeta egoten dira hautsa hartzen. Ez eman denborarik usteltzeko. Badakizu guk gustora jasotzen ditugula eta emandako bezelaxe bueltatu.

Gizonezko talde hau senargaiaren kuadrila ote zen ezin izan dugu jakin. Erretratua ikusita badirudi ezkontzara gonbidatuak gizonezkoak bakarrik zirela emakumeen arrastorik ere ez baita.

Oso guapo daude denak trajeatuta. Orduan ez zen posible gaur egun moduan bakero eta zapatilekin ezkontzara joatea. Oraindik garai hartako batzuei ezin zaie buruan sartu trajeatu gabe ezkontzetara elegante joan daitekeenik. Dotore joateko aukera egin zutenen artean daude hauek:

Galdera guztiak ez ditugu erantzun eta nortzuk diren esan baino lehen, Larrabileko Santi eta Mertzteren ezkontza dela esango dizuegu. Argazkia 1956an aterata dago.

Aurreko hilaran eta eskubitik ezkerretara, **Julian Ormaetxea Gregorio Zabala, Antonio Iturrigaztelu eta Ramon Zabala.**

Bigarren hilaran: **Jabier Atorrasagasti, Eusebio Ibaibarriaga, Jose Azkarraga, Angel Lazpiur eta Nikolas Basauri.**

Atzeko aldean dauden hiru laguneren izenak ezin izan ditugu jakin baina **Pruden Arantzeta eta Esteban Olaortua** antzeman ditugu erdi ezkutuan egon arren.



Ibargarai, 11-13  
BERGARA  
Tel - Faxa: 767058



**MODELO BERRIAK**  
**Kalitate hobea preziorik onenean!**



**OBRAREN PROIEKTUA ERAMATEN DUGU**



**LILURA**

Edertze Institutua

**DEPILAZIO  
PROGRESIBOA**

- Akabo ileak!!
- Aste gutxitan antzemango duzu diferentzia.
- Uda honetan eroso eta seguru sentitzeko.

***Has zaitetz oraintxe!***

Informazio gehiago, Bidekurutzeta 7an. Telefonoa: 766 31 71.